

Funtsezko baliabideak

Produkzioa dedikatzen den enpresa hau martxan jartzeko eta aurrera egiteko hainbat funtsezko baliabide hartu behar ditugu kontuan, fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantzari dagozkion baliabideak izango dira horiek.

Baliabide fisikoen artean, lanerako eremu izango den tailer edo lokala eta gailuak eraikitze beharrezko materiala zein erremintak beharko dira lehenik eta behin. Era berean bezero zein hornitzaileekin kontaktatzeko ordenagailua, telefonoa eta internet izango dira funtsezko.



Salmenta eta marketing-erako gaitasuna beharko dugu geure produktua bezeroei helarazi eta saltzeko. Helburu berarentzako informatika eta sare sozialetako gaitasuna edukitzea lagungarri izango da, salmentekin laguntzeaz gain salmenta osteko zerbitzuan ere lagunduko baitigu. Produktiorako beharrezko izango diren esparruetan gutxieneko ezagutza teknikoak ezinbesteko izango ditugu.

Jakina den bezala, are gehiago enpresa berria izanik, lana aurrera eramateko, produzitzeko, eskulana ezinbesteko da eta horretarako pertsona kualifikatua behar da. Baina guzti hau posible izan dadin diru iturri bat, finantza beharrezko dugu. Bazkideon aurrezkiak nahikoa ez direnez gobernurako sustapen eta ekimenerako laguntzaz baliatu beharko gara eta, era berean, beste bazkide bat bilatuko dugu (interesaturik egon daitekeen bezero garrantzitsu bat izango litzakeena).